

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Kruz Anza Uranga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Aieteko Azkaratenea baserrian hazia. Ama bertakoa zen; aita, berriz, Antiguakoa. Lau senide ziren. Eskola publikoetan ibili zen lehenengo eta maristetan gero, Antiguan. Fraisoron ere atera zuen titulua. Baserriko lanetan ibili da beti. Ganaduzalea da. Loiolan egin zuen soldadutza. Hernaniar batekin ezkondu zen, eta bi seme izan zituzten. Ehiza eta idi demak gustatzen zaizkio. Baserria duela hamabost bat urte bota zuten; lur horietan egindako etxeetako batean bizi da.

Zintak

DON-078

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-17
- **Iraupena:** 93 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Zalgurdiarekin barazkiak eta loreak saltzen

- **Erref:** DON-078/004
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:05:33. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Autobusa ere izaten zen lehen. Zaldigurdiarekin ibiltzen ziren barazkiak, loreak eta esnea saltzen arreba eta ama. Loreen artean larrosak, krabelinak eta beste hainbat saltzen zituzten.</p>

Transkripzioa

- Ari ziñen esaten autobusak lehen ez zirala oingo bezela...
- Bazian autobusak, baiño goizian bat, eta geo eguardin bestia ta arratsaldian bestia. Hoi hobeto esango dizu Manuelek. Hoi memori onekua

hoi; nik ez dakat memori ona, baiño... Oain bai, oain autobusak... bueno!, pasatzen da /pasatzea/ hemen nahi deun ordutan autobusa.

- Baserritar asko juten zian autobusian?

- Bai, berdurakin ta, hola, urruti [zeatara]. Ta beste batzuk, berriz, gu zaldi-karruakin juten giñan lehenbizitik, ta geo automobilla. Aitak erosi zun automobil zea bat ta automobillakin. Baiño...

- Zein juten zan zaldi-karruan?

- Zaldi-karruan? Arreba ta ama. Ta geo, gu ezkondu giñanian, ya orduan ya kotxia... Karmen! Zu jun al zea zaldi-karruan behiñ´e plazaa?

- Karmen: Gutxi.

- A! gutxi. Zerbait bai. Urte asko [dira]. Bai, baiño ez. Ama juten zan ta aita´re beakin. Ta geo arreba ibiltzen zan. Hua oso ona zan zaldi-karruakin. Esnia eman kalea ta berdura pixkat zana´re bai ta loria´re bai, loria asko iten genun.

- Ze lora?

- Loria danetatik: klabeliñak eta arrosak eta reina margaritak eta... Gero Santu Guztietakuan koronak iten genitun. Ez genun ezer zea, e? [Zan] kontuik ez zun ematen. Baakizu, danak juntatzen giñan, gero kanpoko anaien lagunak-eta etortzen zian, ta egunak aurretik igual zortzi egun lehenuo preparatzen, baakizu, armazoiak eta geo ta... Baa! Atzenian "cuentas de numeros redondos"... Baa! oso...

- Lan asko ta diru gutxi.

- Bai, bai, diru gutxi. Oso zea. Gero ya atzeneko urtietan utzi in genun. Baiño oain dala... bai, klaro, urtiak; 14 ya basarritik atera giñala in zitun Eguarri egunian. Aurten Eguarritan 15 urte atera giñala baserritik eta oain ya loreik-eta ez. Nik oan balkoiyian jartzen ditut /jartzeitut/ zea, pipar txikik eta tomatiek eta marrubik eta... hola. Andriak geraniyuak kendu in bihar ditula /inbiittula/ ta oain jarri dittula ta hola ibiltzen gea.

2. Ama "Gota de Leche"n lanean

- **Erref:** DON-078/007
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:10:18. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Amak ezkondu aurretik "Gota de Leche"n egiten zuen lan. Nutrizio arazoak zituzten ume jaioberrientzat esnea ematen zuten bertan. Baserria ere bazuen "Gota de Leche"-k, ganaduekin. Fraisororen antzeko lekua omen zen.</p>

Transkripzioa

- Aita eta ama biak baserritik bizi ziran?

- Bai.

- Norbaitek baserriyan iten zun lana, e... baserritik kanpo?

- Nere amak iten zun, gaztia zala, nobiyotan, "Gota de Leche"n lana iten zun eta nere aitak Lizarriturrin. Ta geo, ezkondu zianian, portero jarri zian hor. Ta geo hor´e afiziyua haundiya zun aitak ganauekin ta hor porteriyan eukitzen zitun bi behi o. Ta geo, esnia zerbait han [zean sartu], ta geo, honea etorri giñanian, hemen. Bost o sei behi eukitzen genitun.

- Ta ama nun ibili zan ezkondu aurretik?

- "Gota de Leche"n.

- Ta hori nun zeon?

- Hoi Donostin. "Gota de Leche" ez dakit nun [...].

- Zer zan?

- Umiei-ta esnia zeatzen, ume txikiyei-ta esnia zeatzen. "Gota de Leche"n lan iten zun. Karmen! Etoz pixkat! Oain zu geatuko zea. Egon, egon, poliki, altxa in bihar dezue /inbiezue/.

- Karmen: Aber, esan, esan hortik.

- "Gota de Leche" nun zan?

- K.: Ez dakit ze kaletan zan.

- Hoixe. Hau Hernanikua baita berez.

- K.: Umientzako esnia ematen zuten.

- Bai. Ta geo basarriya zean zan, hor, [Ixa], "Gota de Leche"ko basarriya. Oain zea, zea nola do hor? Kauen sos! Ez det esango! Nola da zea hoi? Beheko asilua, asilo Matia. Hor zan zea, basarriya. Ta ganau bikaiñak egoten zian. Ta, jo, hamendik, gaiñez, gure etxetik —lehen etxeik ez zan ta — primeran ikusten zan hango ganauak eta hango zeak; hango ganauak ez, hango langilliak eta danak. Ezautzen genitun.

- Eta ze umendako zan esne hori?

- Ume txikiyentzako, jaioberrintzako. Bai.

- Eta hara juaten ziran amak?

- Amak, amak.

- Amak umiekin?

- Umiekin. Ta geo preparatuta ematen ziyoten. Bai. "Gota de Leche". Fraisoroko estiloa. Fraisoron ´e oain Fraisoro... Lehengo astian izandu nitzan Fraisoron. Semiak-eta laguna ´re badakate han, ta ni ´re han ´e... Ni ´re Fraisoron izandu nitzan hamahiru urte nitula.

- A bai, e?

- Bai, ikasten basarritarren zea. Ta diploma ´re eman ziaten, hoinbesteko diploma bat. Eta oain, andriak basarriyan han eukitzen zun aramariyo gaiñian, auskalo. Ta geo honea etorri giñanian hasi naiz "Nere diploma ´re [han...] izango da ba", ta horrek bota in emen zula. Huaxe pixkat erakusteko moduko gauza nakana ta! Ajji, oaintxe ya ez zait geratzen.

3. Eskolako bihurrikeriak

- **Erref:** DON-078/009
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:16:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola publikoan ibili zen, auzoan bertan. Ignacia Barrenetxea izan zen bere maistra. Neska eta mutil elkarrekin joaten ziren. Baratzeko lanetan ere aritzen ziren. Zigortu egiten zituen maistrak, baita jo ere. Bihurrikeriak egiten zituzten ikasleek. Sagarrak harrapatzen ere aritzen ziren.

4. Umetan txoriak harrapatzen

- **Erref:** DON-078/011
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:21:38. **Bukatu:** 00:24:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Umetan txoriak harrapatzen zituzten eta Ramonene baserriko neskameak jateko prestatzen zizkien, patatekin. Denetariko txoriak zeuden lehen, orain ez. Nola harrapatzen zituzten kontatzen du.

5. Don Eustakio apaizaren kontuak

- **Erref:** DON-078/014
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:29:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Igandetan mezetara joaten ziren. Dotrina Aieten jaso zuen. Don Eustakio apaizaren esanekin gogoratzen da: katarroa ardo zaharrak sendatzen zuela, apaiza ez bazen kontrabandista izango zela eta horrelakoak.

6. Apaizak baserrietara bedeinkatzera

- **Erref:** DON-078/015
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:29:06. **Bukatu:** 00:31:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Apaizak baserrietara joaten ziren amonak konfesatzera eta bide batez merienda ederra jatera. Baserriak bedeinkatu ere egiten zituzten. Anekdotak bat kontatzen du.

7. Maristak gogorrak

- **Erref:** DON-078/016
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:31:35. **Bukatu:** 00:33:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Maristetan Antiguán ibili zen hamahiru urtera arte. Gogorrak ziren maristak eta zigortu egiten zituzten sarri. Gaur eguneko egoerari buruzko iritzia ematen du. Apaiza bezelako jantzia eta babero zuria izaten zuten.</p>

8. Erremolatxa eta arbia noiz erein

- **Erref:** DON-078/021
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:47:48. **Bukatu:** 00:49:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Baratzean denetarik izaten zuten. Artoa, arbia, erremolatxa... geroago landatu izan zituzten. Erremolatxa apirilean ereiten da, arbia abuztu bukaera edo iraila hasieran ereiten da. Ametsetan aritzen da orain lehengo kontuekin.

9. Loiolan soldadu

- **Erref:** DON-078/023
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:50:48. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

20 urte ingururekin hasi zen lagunekin festetara joaten. Gero soldadu joan zen. Afrikara joatetik libratu egin zen eta Loiolan tokatu zitzaion, granjan.

10. Aberatsak baino hobeto soldadu garaian

- **Erref:** DON-078/026
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:58:44. **Bukatu:** 01:02:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan zela, Oiartzunera joaten zen soldadu-lagunekin. Aberatsak baino hobeto bizi zen soldadu garaian.

11. Pasealeku Berriko berbena

- **Erref:** DON-078/027
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:02:38. **Bukatu:** 01:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Soldadutzaren ostean, lagunekin irtetzen hasi zen dantzara. Emaztea hernaniarra zuen eta hura hamarretarako etxeratutakoan, Pasealeku Berrira joaten zen berbenara.

12. Ergobiko festetan

- **Erref:** DON-078/029
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:04:56. **Bukatu:** 01:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Erromeriatik bueltan oinez etortzen ziren etxera. Logalea izaten zen biharamunean. Ergobiko festetara bizikletaz joaten zen.

13. Festatik etxeratzean komeriak

- **Erref:** DON-078/030
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 01:07:19. **Bukatu:** 01:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Sagardotegirako, tokarako eta boletarako ez zuen afizio handirik. Etxekoei gezurra esaten zien festatik zein ordutan etorri zen eta behin baino gehiagotan atea itxita topatzen zuen. Tinbrea jo behar edo beste nunbaitetik sartzen zen etxera. Anekdotak kontatzen ditu.

14. Perratokia erosi

- **Erref:** DON-078/032
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:15:11. **Bukatu:** 01:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ferratzailea bazen orduan. Tratu txarra ematen zitzaion ganaduari perratzerakoan. Ferratokia erosi egin zuen beste lagun batekin batera.

15. Idi-demetako apustuak

- **Erref:** DON-078/033
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 01:17:04. **Bukatu:** 01:22:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Idi demetara Ergobira eta Trinidadera ere joaten zen. Aieteko alkateak gonbidapena ekartzen zien ikustera joateko. Beti zer bait jokatzeko nahia izaten zuen. Anekdotak bat kontatzen du.

16. Apustua galdu eta eskarmentua

- **Erref:** DON-078/034
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:22:01. **Bukatu:** 01:24:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Anekdotak bat kontatzen du idi demetako apustuez. Galtzeak eskarmentua ekarriko ziola esan zion lagun batek.

17. Hika eta zuka, apaizari ihes

- **Erref:** DON-078/037
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:28:13. **Bukatu:** 01:29:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika eta zuka hitz egin izan du eta orain ere bai. Apaiza ikusiz gero, berorika egiten zitzaion, baita ezkutatu ere.

18. Igeldorekin pikea

- **Erref:** DON-078/038
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:29:28. **Bukatu:** 01:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Aietekoek parrandazale fama dute baina Igeldokoak askoz gehiago omen dira. Gaztetan Igeldora joan eta bueltan harrika egin zieten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com